

AURKIBIDEA**GELAZ GELAKO BERTSO BILDUMA**

Orrialdea	Taldea
1.	Aurkibidea
2.	Abendaño ikastola - Gasteiz - 5.A
3.	Abendaño ikastola - Gasteiz - 5.B
4.	Abendaño ikastola - Gasteiz -5.D
5.	Abendaño ikastola - Gasteiz - 6.A
6.	Abendaño ikastola - Gasteiz - 6.B
7.	Abendaño ikastola - Gasteiz - 6.D
8.	Angel Ganivet ikastetxea - Gasteiz - 5.D
9.	Angel Ganivet ikastetxea - Gasteiz - 5.D1
10.	Angel Ganivet ikastetxea - Gasteiz - 5.D2
11.	Angel Ganivet ikastetxea - Gasteiz - 5.D3
12.	Angel Ganivet ikastetxea - Gasteiz - 6.D
13.	Angel Ganivet ikastetxea - Gasteiz - 6.D1
14.	Angel Ganivet ikastetxea - Gasteiz - 6.D 2
15.	Arantzabela ikastola - Gasteiz - 5. A
16.	Arantzabela ikastola - Gasteiz - 5. B
17.	Barrutia ikastola - Gasteiz - 5. A
18.	Barrutia ikastola - Gasteiz - 5. B
19.	Barrutia ikastola - Gasteiz - 6. A
20.	Barrutia ikastola - Gasteiz - 6. B
21.	Luis Elejalde ikastetxea - Gasteiz - 5. maila
22.	Luis Elejalde ikastetxea - Gasteiz - 6.A
23.	Luis Elejalde ikastetxea - Gasteiz - 6.B
24.	Umandi ikastola - Gasteiz - 5. A
25.	Umandi ikastola - Gasteiz - 5. B
26.	Umandi ikastola - Gasteiz - 5. C
27.	Umandi ikastola - Gasteiz - 6. A
28.	Umandi ikastola - Gasteiz - 6. B
29.	Umandi ikastola - Gasteiz - 6. C
30.	Armentia Ikastola - Gasteiz - 5. A
31.	Armentia Ikastola - Gasteiz - 5. B
32.	Armentia Ikastola - Gasteiz - 5. D
33.	Armentia Ikastola - Gasteiz - 6. A
34.	Armentia Ikastola - Gasteiz - 6. B
35.	Armentia Ikastola - Gasteiz - 6. D
36.	Toki Eder ikastola - Gasteiz - 5. A
37.	Toki Eder ikastola - Gasteiz - 5. B
38.	Toki Eder ikastola - Gasteiz - 5. C
39.	Toki Eder ikastola - Gasteiz - 6. A
40.	Toki Eder ikastola - Gasteiz - 6. B
41.	Ramon Bajo ikastetxea - Gasteiz - 5. eta 6. maila



GASTEIZKO BERTSO ESKOLA

AMAIA ZENTROA

Pérez Galdós z/g 01002 GASTEIZ

Tel: 945010505 fax: 945288275

Mug: 688695875 (Arduraduna: Iñaki Viñaspre)

e-posta: gasteizkobertsoeskola@yahoo.eswww.arababertsozale.org



Abendaño ikastola – Gasteiz 5.A

HANSEL ETA GRETEL
DOINUA: Ai Zapotxin!

HANSEL GRETEL
EZ DAGO ZER EGIN
SORGINA PIRULINA TA ETXEAREKIN

Hansel eta Gretelen
aitak ez du neska
horregatik umeak
basoan botata

Eta hurrek kasua
egiten diote
eta hantxe sorgina
topatuko dute

Basora joaten dira
lo egitera ta
txokolatzeko etxea
dute aurkituta

Altua ta polita
etxea bai bada
goxokizkoa dute
ta oso handia da

Haurrak etxera doaz
joan ziren horra
hurbiltzen dira eta
kanpoan motorra

Gero emakume bat
izatez da gorra
sorgina pirulina
hau ez da jatorra

Bi anaiak etxea
jaten hasten dira
agure zahar batek
gonbita sortzera

Anaiak harritura
sartzen hasten dira
agure itsusia
sorgin bihurtzen da

Eta sorginak Hansel
kaiolan sartu du
janari asko eman
Hansel da gizendu

Erratza ta jaboia
gretelek eukita
etxe dena polita
ta garbi utzita

Hasel kaiolan dago
gizentzen ari da
egunero izterra
erakutsi b(eh)ar ba

Hansel azkarra denez
oilasko hezurra
erakusten dio ta
beti da gezurra

sorgina despistatu
dagoen batean
Gretelek bultzatuta
lapiko barnean

Hansel du kaiolatik
Gretelek atera
sorgina hilda dago
ama ze pasada

Umeez sorginaren
diru kutxa hartu
eta bere etxera
korrika bueltatu

Zisne bat topatu eta
gainean azaldu
etxera bueltatuta
aitak zoriondu



Abendaño ikastola – Gasteiz 5.B

HIRU TXERRITXOAK ETA
YETIRRONTXO
DOINUA: Ai Zapotxin!

HIRU TXERRITXO
ETA YETIRONTXO
AI! BARBAKOAN NOR EGONGO GOXO

Amak esaten die
nagusi direla
eta beraien etxe
momentua dela

Ta hiru txerritxoak
basora badoaz
Orain beraien etxe
egitera doaz

Txerririk zaharrenak
lastozko etxe bat
eraikitzen du eta
egurrez ertainak

Txerririk gazteenak
adreiluzko etxea
oso_erraza izan da
etxea_egitea

Yetirrontxo ageri da
txerri goseak da
etxe bat ikusi du
eta joan hara

Lastozko etxeraino
prest dauka tankea
puzkerra bota du
apurtu etxea

Manolito korrika
babesaren bila
Horrela irten zaio
plana borobila

Yetirrontxok haserre
etxeari sua
ta txiskeroarekin
eman du oihua

Gaztearen etxera
doaz bi anaiak
Yetirrontxo atzetik
kendu nahian prakak

Yetirrontxo gaiztoa
motorrakin doa
adreiluzko etxea
apurtu ahoa

Yetirrontxok etxeko
pareta apurtzen
eta_etxeko salan
magiaz agertzen

Ezkutatuta daude
txerrikumetxoak
Yetirrontxok topatu
hartu_hirugiarrak

Filogonio_Agapitok
ihes egin zuten
eta atzetik dago
Yetirrontxo entzuten

Bi txerritxoak daude
etxe lorategin
baina Yetirrontxotxok
barbakoa egin

Ama bisitan doa
eta Yetirrontxo
barbakoa jaten da
baita_ere txorizo

Amatxok jotzen dio
eta hiltzen dio
ere labanarekin
sor odol jario



Abendaño ikastola – Gasteiz 5.D

MOMOTARO
DOINUA: Triste bizi naiz eta

Kondaira japoniarra
dugu oraingoan
herritxo txiki baten
erreka aurrean
errekara joan ziren
biak paseoan
ta arropa garbitzen
ari dira uran

Amona egunero
zegoen errekan
arropa garbitzeko
etorri zenean
melokotoi handi bat
dago igerian
Momotaro umea
zegoen ibaian

Agureak zatitu
frutaren erdia
eta barruan dago
umetxo txikia
agureak ikusi
ume berezia
Momotaro irten zen
haur melokotoia

Bada deabrutxo bat
da_oso gaiztoa
dauka borrokarako
handia gogoa
herriak suntsitzeko
du berak asmoa
Momotaro borroka
egitera doa

Bidean gerlariak
aurkitu dituzte
batera joatea
erabaki dute
guztiak ezberdinak
talde_oso bete
ta berarekin doaz
laguntasun truke

Lehenik tximinoa
ba aurkitu zuen
gero txakurra eta
tukana izan zen
katua etorri zen
azkena ondoren
lagunak deabrua
hiltzera joan ziren

Altxorra eraman zuen
Momotaro txiki
deabrua hil zuen
poliki- poliki
Momotarok esan zun
deabru kakati
ondo bizi izan zen
Momotaro beti



Abendaño ikastola – Gasteiz 6.A

IHAUTERIAK

DOINUA: Izkin hontatik

MOMIAK

Sarkofagotik atera gara
zuzen-zuzen hilobit
inauterietara gu goaz
ez gaude mozzoraturik
gu ez gaude plastikoz eginak
linozkoak gara baizik
ez konfunditu pH-rekin
momiak gara_Egiptotik

PIRATAK

Karibetik etortzen gara gu
ez egin zuek dardara
gu itsasontzi batean gaude
gure altxorrai begira
guri ez lapurtu, onak gara
bitxi denak gure dira
horrela deskribatzen gara gu
piratak oso_onak gara

ZONBIAK

Oso beldurgarriak direnez
egiten dugu botaka
zombiek beti garuna jaten
guk jaten dugu patata
gu gaude lotan ta beraiek prest
jotzen dute txalaparta
korrika goaz beldurrez bete
zombietatik iheska

GANSTERRAK

Gu jendea hiltzen ari gara
ta hemen gaude hara ba!
pistolarekin goaz gu beti
eskupekoa emanda
poliziak harrapatu gintun
joan gara kartzelara
hiru urte pasa eta gero
kartzelatik irten gara

POTTOKIAK

Pottokiz jantzita joan gara
etxetik eta Gasteiztik
urdin ta zuri mozzoratuta
gaude gu beti basotik
animatu pottokiz janztera
gurekin ikastolatik
oso polita da mozzorroa
orduan jantzi kaletik

NINJAK

Inauteriak, Gasteizen daude
ta politak dira zuri
ez dira motelak azkarrak bai
ta ninjak ez dira lodi
izarrak txiki baina azkartxo
jendea oso urduri
ziur ez dutela ikusi ez
botatzen izarrak guri

NESKA POLITAK

Oso politak dira neskatxak
eta ondo begiratzen
neskatxak politak dira eta
bai lagunekin jolasten
gona politak jartzen dituzte
oso ondo dira jartzen
ezpainetan karmin gorria
ta gaiztuzte liluratzen



Abendaño ikastola – Gasteiz
6.B

EUSKARA

DOINUA: Orioko balea

KORRIKA

Bi urte eta gero
berriro ospatzen
ondo egoten gara
korrika egiten
egun honetan beti
eskolan jolasten
Euskal Herrian beti
euskaraz mintzatzen

EUSKARAREN EGUNA

Abenduaren hirun
urtero hor dugu
beti ondo pasatzen
ta lagunekin gu
taloak egiteko
festa_hauek ditugu
euskararen eguna
betiko daukagu

EUSKARAZ HITZ EGIN

Munduan ez du inork
euskaraz egiten
gehiago landu euskara
bestela da galtzen
beti bertsolaritza
euskaraz abesten
euskal herrian dugu
euskaraz mintzatzen

EUSKARA GALDUKO DA

Zerbait egin behar da
eta oso arin
laguntza behar bada
euskaraz hitz egin
benga etorri azkar
ez du_gingo min
euskaraz egin behar
desager ez dadin

HIZKUNTZA OFIZIALA

Euskaraz hitz egin guk
nahi dugun ordura
egunkarian ikus
euskararen portada
eta erdarak guri
ematen ikara
gure ustez euskara
ofiziala da_hara

BERTSOLARITZA

Gu hemen gaudenean
ondo pasatzean
kantak egitekoan
ondo kantatzean
hemen eta parkean
jolasten bertsotan
ondo pasatzen dugu
bertso egitean



Abendaño ikastola – Gasteiz 6.D

EUSKARA
DOINUA: Orioko balea

EUSKALTEGIAK
Euskararik ez dakit
okerrenak gara
hau ez da ez broma bat
goaz ikastera
guk jakingo bagenu
hobe izango da
euskaltegien lana
indartu euskara

EUSKAL HERRIA
Euskal Herrian gaude
taloak prestatzen
lagunekin batera
taloak banatzen
Euskal Herrian gaude
guztioak kantatzen
oso polita bada
hemen bai bizitzen

EUSKARAREN EGUNA
Goizean esnatzen naiz
Joateko_eskolara
lagunak eta guzti
goaz jolastera
taloak egitera
ta gero jatera
eguna bakatzean
merienda hartzera

EUSKAL KANTUAK
Guk ez ditugu_entzuten
horrela bai gara
baina_horiek entzunez
goaz Euskadira
ta horiek entzunda
za(ha)r bihurtzen zara
eta Euskal kantuak
gustukoak dira

KORRIKA
Euskal Herriko jaiak
pasatzen amonak
korrika egitean
pasa eraikinak
oso polita dago
korrika eginak
animatu zaitezte
gurekin lagunak

EUSKAL DANTZAK
Lurra jaio zenetik
dira famatuak
oso tradizionalak
dira abestiak
gure dantza taldeak
jaso bost sariak
Euskal Herriko dantzak
guretzat onenak

EUSKAL TRADIZIOAK
Ikastolan ez dago
parranda gauean
blusaz jantzita doa
jendea goizetan
taloa serbitzen da
euskal tabernetan
baserritarrez jantzi
Gasteizko jaietan



Angel Ganivet Ikastetxea – Gasteiz 5.D

Ai klasea
behar dut bakea
opor gehiago nahi dut izatea

Altaboz bat nahi dugu
hobeto entzuteko
ikasleak klasean
adi egoteko

Guk nahi dugu gauza bat
azkar zuzentzeko
lasaiago etxean
hobeto egiteko

Etiket etorrita
joan behar kotxean
Euskaraz egitea
gelan ta klasean

Baina gure ikasleak
beti zarataka
guk asko behar dugu
jan eta soldata

Irakasleak gara
guapa eta guapo
opor luzeagoak
ez legoke txarto

Berdin patio etxea
parke zein klasea
neska eta mutilak
ondo tratatzea

Agian robotak dira
hobeto amatatu
hitz egiteko beti
eskua altxatu

Etxean etxekolan
arratsean egin
telebista ikusteko
Ondo eta arin

Nahi badute benetan
paga ematea
seme alabak klasean
arreta jartzea

Nahi genuke umeek
gehiago ikastea
eta horretarako
ondo portatzea

Parkean jolastu eta
klasean egin lan
klasean ez jo eta
lagun minak izan

Gelan inoiz ere ez
ikusi Pokemon
klasean ez jolastu
eta txintxo egon

Murrizketa etorrita
jarraian bi laino
aberastasuna hobea
holakoak baino

Klasean gaudenean
binaka pentsatu
klasean ez jolastu
baina disfrutatu



Angel Ganivet Ikastetxea – Gasteiz 5.D.1

**Ai ze zikin
beti dago berdin
horrela bizi ez dugu atsegin**

Klasean sartu eta
papertxoak bota
klasea garbitzeko
nahi dugu robota

Ez daukagu gogorik
hankak mugitzeko
Ferrari bat nahi dugu
lanera joateko

Zikina eta orbana
kentzeko seguru
Mopa elektronikoa
izan behar dugu

Lana amaitu nahi dugu
fisioterapeutan
jacuzzia nahi dugu
klase guztietan

Beti gaude ibiltzen
ta beti korrika
Garbitzeko eskailerak
makina polita

Beti daude zikintzen
hemengo umeak
mahaiak garbitzeko
produktu hobekak

Haurrek zikintzen dute
patioa asko
Soldata hobea nahi
garbitzaileentzako

Jantzi berriak eta
modernoak aski
Umeak dira eta
gehiegi basati

Kaka ta txizarekin
guztia zikindu
komunak garbitzeko
robot bat nahi dugu

Mahaiak beti zikinak
gu nekatuta bai
tanta batekin dena
garbi eduki nahi

Zuk nahi duzunean
pozik egotea
Guk guk nahi genuke diru
gehiago ematea

Produktuak falta dira
gelak garbitzeko
Nahi dugu jacuzzi eta
bazooka ez hozteko



Angel Ganivet Ikastetxea – Gasteiz
5.D.2

Nahiz eta errazena
dugun kutsatzea
hobe dugu natura
errespetatzea

Kalea garbi egon
behar da ta berez
zigarroak ez bota
lurrera mesedez

Errazagoa izango
da denon artean
hobe da ez botatzea
zaborra kalean

Zaborra kalean da
hobe ez botatzea
txakurraren gorotzak
hobe jasotzea

Ibaietan zakarra
ez da behar bota
ibaietan zakarra
mordoa dago ta

Denok lortuko dugu
ta ez egin negar
mendietan etxeak
ez eraiki behar

Lortu behar duguna
herriko kotxea
bizidun guztiak ez
kontaminatzea

Gure helburua da
ixtea txorrotan
komun ta sukaldea
ur asko ez bota



Angel Ganivet Ikastetxea – Gasteiz
5.D3

Bazen behin Robin Hood bai
mutil oso argia
basoan bizi bai zen
jaten madaria
bere uniforme
arku ta gezia
hori gustatzen zaio
da bere hobia

Talde bat egitea
ta nahi zuenean
ordu baten elkartu
modu azkarrean
ezagutu bai ziren
eureka ertzean
ta lagunak egiten
ditu azkenean.

Robin Hood kartzelara
euki zuen problema
erregeak zeukanez
bihotza gardena
kartzelatik joan zen
pilatu zen pena
herrira joan ta gero
erre zuten dena

Ez zeukan diru asko
bere etxea koba
horregatik nahi zuen
egin horren froga
denok berdina eukita
Robin Hood gustora
kartzelara joan eta
hor geratuko da

Printzesatxo maitea
Robini esaten
mesedez salbatzea
edo erre egiten
Robin Hoodek salbatu
hori egin zuen
Robin Hood ta printzesak
haur bat izan zuten



Angel Ganivet Ikastetxea – Gasteiz 6.D

**Gudetan, gudetan,
Hildako asko gudetan
Gudetan, gudetan,
Pertsonak odoletan**

Guda hoietan ahal da
pertsonek hiltzea
gudako herrialdeek
pasatu gosea
eta hil den bizitzak
daraman haizea
ta hori pasatzea
litzateke hobea
guztiok elkarrekin
bakea lortzea

Arma bat odola da
ta odola hiltzea
arma bat izatea
dirua sortzea
armarekin tiro egin
odolez etxea
txarto iruditzen zaigu
armak erostea
guk ez dugu nahi hauek
odola sortzea

Denok beldurrarekin
galduta burua
etxeak apurtuta
ez da segurua
euren misiletatik
belztu da zerua
baina beste munduan
dena da galdua
mesedez emaguzu
bake ta dirua

Hitler oso txarra zen,
ta dena puskatu
ez dago erremediorik
guk bonbak askatu
armak lurrera bota
ezer ez gertatu
eman diru guztia
ez dute nahi tratu
armaz eta diruaz
dena konkistatu

Guda bukatu eta
jendea elizan
eta irabazleak
badaude barrean
beraiek orain daude
lapurtzen etxean
baina ez daude pozik
zauri asko daude han
tristura asko egon da
hilak ikustean

Gaur guda bat hasi da
eguna heldu da
ez ditugu nahi hilda
haur hau, neska hura;
etsaiek beti kontra
besteek nahi ura
guri ez zaigu gustatzen
gudaren ardura
etsaiek poza eta
txiroek tristura



Angel Ganivet Ikastetxea – Gasteiz 6.D 1

ANGEL GANIVET
Bertsopaperak: OPORRAK

Eskola amaitu da
hemendik Romara
klasea bukatuta
ta a ze algara
izozki bat eskuan
ta a ze patxada
gure hurrengo helmuga
institutoa da
azken maila bukatu
ta joan behar gara

Etzetik joateko
gu ez aspertzeko
hondartzan beti nago
kokoak jateko
tunbonetan entzanda
gaude ezin hobeto
ur ariketak egin
guk disfrutatzen
oporrak lanik gabe
ondo pasatzeko

Apartamentuan gaude
hondartza buruan
orain joango gara
korrika moduan
eta segundu baten
bagaude munduan
bueltatuko gara
agian neguan
ondo pasako dugu
igerilekuan

Arratsalde on lagunak
hemen gaude berdin
puroa erretzen ta
kalimotxoarekin
jolasa eta dantza
hemengo umeekin
aurpegia margotu
gure margoekin
gaupasa ederra egin
dugu guk zuekin

Mundua ezagutu
segunduz segundu
oporretan gaude ta
bi hilabete inguru
ezagutu ditugu
hainbat txoriburu
esperientzia berriak
izatea helburu
lagunekin joan ta
bidaiatu dugu

Oporretatik bueltan
lagunen aldera
maisua ikusi ta
lana egitera
kontrolak izan eta
gero jolastera
etxera bueltatuta
betiko antzera
ekialdera joan ta
berriaz aspertzera



Angel Ganivet Ikastetxea – Gasteiz
6.D2

Andoni Jonmi eta besteak
beti egiten trukoak
haizea eta DESI lagunak
horrela egiten giroak
beti daude hor skate parkean
graffittiak modernoak

Erortzen zara patinetean
eta korrika parkean
neska guztiak ikaratuta
saiatzen dira batean
lehenengo aldian botatzean
jende guztia lurrean

Ikusten dugu mutil ta neska
egiten beti trukito
batzuek hortxe daude hizketan
eta besteak jauziko
laburtzeko egiten duguna
tontokeriak ta kitto

Skate parkean jolasten dugu
hartuta gure mikroak
hauek dira gure mikroakMGP,
district ta gritkoak
hemen ditugu patineteak
mota guztietakoak

Klasetik irteten garenean
hara joaten gara zuzen
Backflip, Transfer, oreo ta abar
egoten gara ikasten
skate parkean egoten gara
eta trukoak egiten

Salto ta buelta ibiltzen gara
Patinete ta errata
transferra egiten gora eta behera
ezin mantenduz oreka
gure virola oso XTREME da
adrenalinaz beteta



Arantzabela ikastola – Gasteiz
5.A

BERTSO ASMAKIZUNAK

Hainbat koloretako
zera hau atera
kirol askotarako
behar den aukera
sandia baten antza
badauka gaitera
hegan egiten duen
airezko esfera

Berdin zaigu tabernan
edo okindegian
beti jaten ditugu
makila txikian
marroia jaten dugu
ogian agian
telebistan ikusten
da iragarkian

Jendeak maitatzen du
gehiago gatean
eta marea sortzen
du gure aurrean
gazta baten antza du
honek azkenean
denbora gutxi irauten
du hortxe gainean

Gozo-gozoa dago
ta jaten gabiltza
umeentzako saria
gaizki ba zabiltza
haurrak konbentzitzeko
benetako giltza
hainbat formatakoa
da bai gure hitza

Umeei gustatzen
zaizkigu mordoa
denak gustoko dugu
denok jan osoa
zapaian geratzea
hori arazoa
Europar sortutako
janari goxoa

Kolore asko dute
forma askotakoak
eskuetan jartzeko
kolorezko gauzak
orain modan dauzkagu
ze gauza politak
ostadarraren antza du
gure objektuak



Arantzabela ikastola – Gasteiz
5.B

7 ANTXUMEAK


Doinua: Behin batian Loiolan

Zazpi antxume bazeuden
 etxe polit baten
 oso pozik ta alai
 bai hor bizi ziren
 janaria falta zen
 “Zuek geratu hemen”
 ta erosketetara
 amatxo joan zen

Otsoa iritsi zen
 beraien etxera
 zakarra otsoa ta
 berbera jarrera
 antxumeek pentsatu
 hau gure aukera
 antxumeek bidali
 airea hartzera

Gure otso gaiztoak
 fintzeko ahotsa
 dendara joan eta
 erosi arrautza
 ahotsa fina baina
 antxumeek ezetza
 zeren otsoak zuen
 oso hanka beltza

Hanketan jarri zuen
 irin espeziala
 eta horrekin berriro
 zen otso zitala
 hanka txuria zuen
 elurra bezala
 eta atea ireki
 zuten berehala



Barrutia ikastola – Gasteiz 5.A

HAMELINGO TXIRULARIA
DOINUA: Ai Zapotxin

AI HAMELIN
EZ DAGO ZER EGIN
ARRATOI ETA HANGO UMEEKIN

Hamenlingo herrian
arratoiak zeuden
horiek uxatzeko
beharra zeukaten

Arratoi asko ziren
hil beharra zuten
baina txirulariak
eraman zituen

Herrian arratoiak
milo bat badaude
desagerrarazteko
beharrean daude

Diru asko emango
hiltzen ditu(e)nari
heroi bat izango da
eraman duenari

Hango txirularia
agertu zenean
txirula joz joan ziren
guztiak atzean

Oso ondo jotzen zuen
xuabe-xuabe beti
poliki jotzen zuen
baina oso ozenki

Dirua ez zeukaten
dena gezurra zen
ta berriro jendea
hasi zen txoratzen

Azkenean jendea
tristetuta ziren ta
ba ordaindu zioten
euroak milioika

Txirula jotzen hasi
eta haurrak baita
basora eramanda
guztiak larritu

Herritarrak tristeak
jendea bilatu
basora joan ziren ta
ez zuten aurkitu

Herriak diru sari
ez zioten eman nahi
baina eman beharko
ezin da egon zai

Umeak bueltatzeko
ta besteak alai
dirua eman behar
zioten hari bai

Umeak joaten dira
beraien etxera
dirua jatsotzeko
badauka aukera

Gurasoak begira
pozik eta algara
ta umeak etxean
pozik bizi dira



Barrutia ikastola – Gasteiz

5.B

ZIPI TA ZAPE
DOINUA: Ai Zapotxin

Biak anai berdinak
Zipi eta Zape
uda internaduan
bai pasako dute

Internadu barruan
gaizki portatzean
gela zuri batean
sartu dituzte han

Gela horretan daude
kanikak ta mapak
umeez bilatu ta
zelako algarak

Ta mapa jolas baten
hasiera_omen da
zigor gelan hasten da
zelako ikara

Mapan bost irudiak
agertzen dira bai
hauek topatu behar
ta abenturak jarrai

Mapak barnetegiko
lurrazpiko_ubide
irudikatzen ditu
altxorren bide

Gure kanikatxoek
energia dute
eta pasabideak
zabaltzen dituzte

Zuzendariarekin
topo egin dugu
zuzendaria_atzetik
jarraika daukagu

Altxorra topatu ta
bertan jostailuak
daude bai onena ta
urrezko gailuak

Zuzendaria tranpa
baten trabaturik
harrapatuta dago
ezin mugaturik

Bere lekuan gorde
behar dute altxorra
txirrista oso polita
agertzen da horra

Kanikak harri bitxi
dauzkate barruan
eta zuzendaria
lapurta nahian

Zuzendaria bitxi
lapur bat zelako
atxilotuko zuten
urte_askotarako

Beraien etxetara
buelatu_egin ziren
pozik eta barrezka
ta gustura zeuden



Barrutia ikastola – Gasteiz 6.A

EUSKARA

DOINUA: Orioko balea

Euskaltegi ikastola
baina gutxi euskara
eta egiten dugu
kanpoan erdera
Anaje irakasten
saiatu da jada
euskara ez da egiten
penagarria da

Euskara ikasteko
euskaltegiak daude
Logroñon ta Madrilen
euskaltegi gabe
gure euskaltegian
andereño Tere
eta euskaltegiak
Amerikan ere

Bertsoko liburuak
taldeka ikasten
gaude hiru pertsona
bai oinak bilatzen
eta horren ondorioz
euskaraz mintzatzen
Uxuerekin gaude
bertsoak egiten

Euskara dugu hizkuntza
mingainan dantzaten
euskara ez galtzeko
dugu erabiltzen
jantokia ta gelan
euskara eskatzen
gu ikastolan beti
euskaraz mintzatzen

Kaixo esaten dizut
hemen nago hondartzan
luze luze etzanda
toaila gainean
zu hor egongo zara
jotake lanean
oso ondo pasatu
zuk ere zure herrian

Ikastolan ospatzen
urtero urtero
euskara entzuteko
behin eta berriro
botila betetzen da
ia egunero
euskararen astean
euskara gehiago

Seigarren mailakoak
denetik badugu
liburuak ta gauzak
ere baditugu
euskaraz hitz egin
da gure helburu
euskara ikastolan
hitz egiten dugu



Barrutia ikastola – Gasteiz
6.B

EUSKARA
DOINUA: Orioko balea

Gu ikastolan gaude
beti jolasean
euskara hitz egiten
dugun bakoitzean
Xabier pozten zaigu
ta poza ahoan
guk euskaraz egin
denbora guztian

Olentzero etorri
kaixo esateko
dantza egin diogu
pozik egoteko
euskaraz hitz egiten
ondo pasatzeko
opari asko dauka
guri emateko

Euskaraz egiteko
zabaldu ahoa
beti ikastolara
etortzeko asmoa
kapa morea eta
bi oinetakoa
noski gure laguna
goizean bertsoa

Festa honetan ez da
hitz asko erdaraz
jendea batzuetan
ez da oso kapaz
eskaraz egiteko
ta gu beti goaz
Arabian ospatzen da
Araba Euskaraz

Euskaraz egiteko
ondo jakiteko
euskaltegiara goaz
ondo pasatzeko
euskara ikasi eta
gero mintzatzeko
euskaltegiak dira
euskara ikasteko

Euskararen astean
parranda handia
euskara da handia
erdara txikia
euskararen astean
esanda egia
irabazten badugu
guretzat saria

Martxoa bukaeran
korrika Gasteizen
lasterketa guztian
Euskara entzuten
Euskal Herrian buelta
oso bat ematen
oso pasatzen dugu
korrika egiten



Luis Elejalde ikastetxea – Gasteiz
5. maila

Hau faena
Zigortzea pena
Haueti beti esan behar zaie dena

Bonboiak ta esnea
Frakak ta jertsea
Umeeek opariak
Guri egitea

Diru gutxi izatean
Bihurtzen naiz baldar
BEZaren igoerak
Ondorioak dakar

Lanean denbora asko
Gaude gurasoak
Gurasook nahi dugu
Opor luzeagoak

Isilik egon behar
Mahai inguruan
Umeeekin oihuka
Jateko orduan

Umeeek egiteko
Lanak bota dena
Umeeek ez dute nahi
Etxerako lanak

Ogia eta mortzilla
Ura eta leka
Deskontu gehiago bai
Nahi dugu dendetan

Etxean garbitzen du
Beti nire amatxok
Etxea beti zikin
Dauka nire aitaxok

Hainbeste zaku hartu
Orduak sartzea
Bizkarra gaizki dugu
Eman masajea

Oso garesti dago
Argia piztea
Argian salneurria
Nahi dugu jeistea

Ezer esan behar da
Gauza guztietan
Gauzak errepikatzen
Beti dena esan

Ireki iturria
Ireki ahoa
Guk nahi dugu jeistea
Uraren prezioa

Oso diru gutxi dut
Ta ni naiz pobrea
Nahi dut nik ematea
Soldata hobea



Luis Elejalde ikastetxea – Gasteiz

6.A

Estribilloa:

Eskola, eskola, eskola ideala
Eskola, eskola, eskola ideala

Guk asko maite dugu
Patioan azaldu
Baina gaur ezin dugu
Azterketa galdu
Andereño nahiz maisu
Mila froga dugu
Barruan banatuta
Ta kanpoan bildu
Azterketa gehio ez
Ta umeok agindu

Gure jantokia da
Oso originala
Zeren buffetan dago
Gauza espeziala
Eskatu eta gero
Duzu berehala
Postrerik hoberena
Txokolate pala
Holakoa da gure
Eskola ideala

Aquapark bat daukagu
Bota begirada
Guretzat ondo dago
Goazen uretara
Ta parakaidismoa
Ere egin ahal da
Horrelakoa bada
Ondo joango gara
Pozik joango nintzake
Nire eskolara

Tirolina badago
Galtzeko denbora
Horrela klaseetan
Galtzeko dugu froga
Igeri egitean
Poza doa gora
Horra ailegatzeko
Leihotikan bota
Horrela eskolara
Joango naiz gustora

Txirrista eskaileran
Eta soffing gelan
Umeok patiora ta
Irakasleak lan
Azterketak guri ez
Hori dago sobran
Gauzak eginez gero
Guk nahi dugun eran
Oso pozik egongo
Ginateke eskolan

Gure atrakzioa
Da izugarria
Patioa betetzen du
Zeren da handia
Zuri, urdin, morea,
Baina ez gorria
Gure errusiarr mendiak
Du looping handia
Dibertigarria da
Errusiar mendia



Luis Elejalde ikastetxea – Gasteiz
6.B

Estribilloa:
Gabonetan bagoaz benetan
Hurrengo urtean berriz hona bueltan

Izan bazara gaizto
Gabon oso latza
Olentzerok emango
Saku bat ikatza

Dantzatu edo abestu
Zuzen edo oker
Zuen txaloengatik
Guztioi milesker

Urte berri ona euki
Daukagu esperantza
Ta urtea hasteko
12 mahatsa

Gabon onak pasatu
Zure lagunekin
Gozatu eta berotu
Gaztainarekin

Gabon gaua ospatu
Familiarekin
Gabon kantik kantatu
Eta dantza egin



Umandi ikastola – Gasteiz 5.A

Estribilloa:
Ai zapotxin
Ez dago zer egin
Umandiko ume bihurri hauekin

Irakasleak klasean
Beti daude bronkan
Beti daude hizketan
Umeak klasean

Buruarekin beti
Hamaika apuru
Beti iristen dira
Klasera berandu

Ez badute ikasten
Niretzat ederki
Zergatik ezin dugu
“gutxi” jarri beti?

Erregela handia
Ahal banuen sartu
Beti egongo nintzen
Joka eta hartu

Asko gustatzen zaie
Marraztea gela
Egun osoa daude
Margotzen arbela

Patio orudan beti
Zapatak bustitzen
Egun osoan daude
Komunak bustitzen



Umandi ikastola – Gasteiz 5.B

Hansel eta Gretel
Doinua: Maritxu nora zoaz

Mendietan lapurtzen
egurra lapurra
Hansel eta Gretelek
Sorginei beldurra
Etxean bero-bero
Sutan da egurra
Etxetik aterata
Beti dago elurra

Goxokizko etxea
Ikusi egin zuten
Eta hain gozoa zenez
Hasi ziren jaten
Goxokizko etxean
Sartu egin ziren
Eta haren barruan
Sorgina zegoen

Kaiolatik atera
Nahian tira-tira
Gretelek giltzak hartu
Begiak dizdira
Baina zer gertatu da
Begira begira
Ostiko bat emanda
Sutara erori da

Mendia ezagutzeko
Zuten ikusmira
Eguzkia zeruan
Han dago dizdira
Anai-arrebak pozik
Txoriei begira
Baso ilun batean
Galdu egin dira

Hansel kaiolan dago
Preso baten legez
Gretel berriz betilun
Dago lan eginez
Hansel potolo dago
Eta Gretel nekez
Sorgina gaiztoa da
Eta bihotzik ez

Sutara bota eta
Sorginak iseka
Bigarren solairura
Igo ziren eta
Hansel eta Gretelek
Jarrita arreta
Altxorra lortu zuten
Ta etxera buelta



Umandi ikastola – Gasteiz 5.C

Estrbilloa
Ai zapotxin
Ez dago zer egin
Gure ume gaizto ta bihurriekin

Beti penkatzen dute
Mate eta Gazte
Nota txarrak atera
Egiten dituzte

Jostailu denak dira
Oso garestiak
Beti apurtzen dituzte
Jostailu guztiak

Pixa egiten dute
Eta oso fina
Beti ekartzen dute
Arropa zikina

Beti tontakerietan
Ta beti jolasten
Umeek ez digute
Kasurik egiten

Oso gustoso dute
Beraiek “Burger King”
Zergatik ote dabiltz
Bideo-jokoekin?


Telebista ikusten
Daramate astea
Nahi dugu gure umeek
Gehiago ikastea

Ez daukagu dirurik
Erosteko banbu
Geroz eta soldata
Txikiago dugu

Gure nagusiek ez
Gaituzte uzten lasai
Ez ditugu aparteko
Orduak sartu nahi

Gureak gutxi jaten
Frutak barazkiak
Gure seme alabek
Beti goxokiak

Goxoki ta opari
Dirua eskatzen
Emanda ere ez dira
Inoiz konformatzen



Umandi ikastola – Gasteiz

POSTALAK

Kaixo lagunak, museoa gaude
 pasillo luzean zehar
 antzinako dinosaurioak
 bazeukaten gehio indar
 Kasinoetan dauden jolasak:
 makina, ruleta billar,
 Miamin ondo egonagatik
 guk diru gehiago behar
 abioia hartu behar dugu laster
 ikusiko gara bihar

Kaixo lagunak, hondartzan gaude
 bota eta salto plantxa
 asmatu ezazue non gauden
 ez dauka Gasteizen antza
 izugarria den hiri bat da
 biztanleria eskasa
 pizza da janari hoberena
 osagai onena masa
 bihar goizean itzultzen gara
 agur eta ondo pasa

Kaixo morenos nola zaudete?
 gu hementxe ondoegi
 gustu ezberdinak badauzkagu
 beraz orain egon adi
 Gironara joan gara oporretan
 eta hondartzan igeri
 bati mottorak gustatu eta
 One Direction besteari
 besarkada handi bat zueri
 agur eta ondo segi

Hello how are you? Today we are OK
 hemen dena ondo doa
 jada ikusi ditugu Big Ben
 ta Picadilly zirkoa
 joan gara zinemaren ondora
 jolastu dugu boloa
 gutxi faltza zaigu ja heltzeko
 nahiz ez daukagun gogoa
 besarkada bat eta bi muxu
 agur, Sergi ta Ainhoa

Kaixo lagunak, hondartzan gaude
 Marokoko_hiri den Rabat
 hondartzan egun osoa egon
 berotu gara erabat
 bixita gidatua dorrean
 bueltatzekotan alferrak
 aireportuan langileen greba
 dago guretzako trabak
 oporretan gu hemen oso ondo
 agur ta muxu bero bat


**Umandi ikastola – Gasteiz**

6.B

5. mailan hasi
ginen elkarrekin
batera ikasteko
mingaina eragin
niri gutxienean
pasa zaizkit arin
behintzat badakizue
bertsoa nola egin.

Ai zapotxi, ipuina,
komiki, postala...
denetik egin dugu
behar zen bezala,
zuei irakastea
gauza mundiala,
nik ere ikasi dut
irakatsi ahala.

Elkarrekin bi urte
pasata aizue
bertsoez ia zeozer
ikasi duzue
ikastola garaia
bukatu zaizue
institutuan ondo
pasa ezazue!



Umandi ikastola – Gasteiz 6.C

Doinua: Triste bizi naiz eta

OSASUNA

Kirol motak egiten
tenis ta badminton
ez baduzu egiten
joan ta hor konpon
ez bazara dopatzen
zorte ta zorion
Kirola asko egiten
osasuntsu egon

ENTRENAMENDUA

Lehenbailehen egin
jolas ta jokua
beisbol eta korrika
kapitain lelua
polikiroldegian
egin olatua
ondo prestatu zazu
entrenamendua

JOLAS GARBIA

Hockey partiduetan
egon behar adi
Diskoa sartzekotan
egin indar handi
Haien buruan dago
ez izan nagi
errespetuz jolastu
pozik eta garbi

LESIOAK

Kirolari batzuek
sariei begira
eta beste batzuk ez
doaz urrutira
Ahalegina neurtuz
Hobeto ari da
Hemen lesio asko
izaten baitira

DOPPING

Asko dopatzen dira
hobetzeko asmoaz
Baina ezin fidatu
txirrindulariaz
gehien dopatzen dena
Armstrong diferentziaz
baina harrapatuz gero
pikutara doaz

DIETA

Dieta on bat izanda
ez duzu behar jan
Kirola egitea
ondo gorputzean
nabarituko duzu
zure osasunean
beharrezkoa dena
ondo jan ta edan



Armentia ikastola – Gasteiz

5.A

BRANDY BEACH MOVIE

Beti olatuetan
Brandyk eta Macek
beti daude_oso pozik
bi surflari hoeik
surfean beti daude
jolasten beraiek
maiteminduta daude
gure bi surfistek
oso_ondo pasatzen
dute bi lagunek

Olatu handi batek
eraman zituen
pelikula batean
biak dira sartzen
eta biok dantzatzen
eta surfeatzen
borrokaren erdian
biak parte hartzen
ta sartzen dira mundu
paralelo baten

Bradi leku horretan
egongo zen alai
Makek berriz nahiago
etxera itzuli nahi
motoristak hondartzan
a ze jaleo ai!
surfistak motoristak
hori da hango gai
motoristak haserre
surfistak ere bai

Nahi gabe pelikula
berria da hasten
bi zientzilari ero
dabilta pentsatzen
olatuak kentzeko
euria egiten
ta dena izorratu
natura apurtzen
dena oxidatzeko
makina bat sortzen

Zientzilari eroak
surfistak ikusten
eta pentsatzen dute
ideiatxo baten
surfistak daude eta
dena entzun zuten
orduan geroago
azkar joaten ziren
zientzilariak daude
surfistak bahitzen

Surfistak, motoristak
korrika_abiaduraz
konturatu dira
lagunak ez daudelaz
azkenean aspertu
egin dira erraz
surfistak motoristak
elkartuta goaz
ta surfista lagunak
salbatzera doaz

Ta denok elkarrekin
makina apurtzean
denok atera dira
ondo pasatzean
hondartzan denok daude
itsas bazterrean
eta bi mutikoak
etxera bueltan
ekaitza sortzen dute
eta etxera joan



Armentia ikastola – Gasteiz

NEMO

DOINUA: Ai Zapotxin!

Nemo pailazo arrain
txikitxo bat bada
ama galdu duena
barrakudak janda

Bere aita badago
sema topatzen
eta hau saiatzen da
Dori ez aspertzen

Marrazokin topatu
Dori eta Marti
lurpeko itsasontzi
baten daude noski

Dentistaren koltsultan
Dorik eta Martik
ikusten dute nola
Nemo dago(e)n hilik

Igeri egiteko
zailtasunak ditu
hegats bat txikia ta
aita da beldurtu

Ai nemo zure bila
dago zure aita
ta Doriren laguntzaz
tortila patata

Marrazokin joan dira
Dori eta Martik
zer egin ez dakite
joateko itsasotik

Nemok pentsatzen du ta
joateko itsasora
hildakoa egiten
komunetik behera.

Aitak behin esan zion
ez joateko etxetik
baina gure Nemotxo
joan zen itsasotik

Nemo kontsulta baten
beste arrainekin
ateratzea lortzen
gizon eskuekin

Dorirekin batera
dortoken gainean
heldu dira Sidneyra
korronte batean

Aita itsasora doa
arrantzontzi batek
Dori_harrapatu dute
gizonen sareek

Gizontxo batek hartu
eta eraman zuen
bere itsasontzian
poltsa baten sartzen

Hildakoa eginez
komun zuloxtotik
atera lortu zuen
dentistarenetik

Bi arraintxoak dira
dentistarenean
biak ausartak dira
kontsulta barnean

Beste arrain pila bat
Dori eta aita
Nemoren bila doaz
daude salbatuta



Armentia ikastola – Gasteiz
5.D

LEHOI ERREGAEA
DOINUA: Kupela

Ilobaren batailo
egin dio uko
errege ez delako
amorruez topo
bere indarrarekin
eta oinordeko
pentsatzen ari dela
zerbait egiteko
aita semeak hil nahi
errege izateko

Hilerriraino doaz
biak bai gustura
hienak entzun dituzte
salta egin gora
biak korrika hasi
bai duten ganora
hieneak akorralatu
ta ez jakin nora
erregeak entzun ta
bera erasora

Sinba eta etxera buelta
eta oso seguru
erabakitzen du bere
lagunekin dugu
egia kontatzen
du oso seguru
Sinbaren lagunekin
salbatzen dute apuru
osabarengana doa
borrokatu nahi dugu

Aitak semetxoari
erakutsi aberri
semetxoari asko
gustatu bai herri
herriko boterea
ta errege berri
baina bada leku bat
Hark ezin igerri
leku guztiak salbu
elefante hilerrri

Korrika ta korrika
galduta zegoen
lagun batzuk egiten
hasi zen kantatzen
oihanean zegoen
denetik probatzen
bapatean lehoi bat
ikusi egin zuen
Sinbak Nala ikusi
etxer joan zen

Semeak borrokatzen
Ez du alde talde
borroka irabazi
ta dirurik gabe
hienek osaba jan
ta semea jabe
gero denak batera
semearen alde
semea izango da
lurraldeko errege



Armentia ikastola – Gasteiz 6.A

EUSKARA
DOINUA: Pasaiaiko plazatik

EUSKARA DA GURE HIZKUNTZA
Euskara da munduko
hizkuntza guaiena
euskararen eguna
garrantzitsuena
arbasoen altxorra
bitxi bitxiena
horregatik euskara
munduko onena

EUSKARAREN EGUNA
Ikastolara joan
gu kotxearekin
euskararen egunan
euskaraz hitz egin
euskararen eguna
jolas eta dantzekin
Argitxo etorri da
kriseiluarekin

EUSKALTEGIA
Entzun zazu oraintxe
ez izan mutua
euskaltegi bat dago
eman dit eskua
banoa egunero
nire aholkua
euskara ikasteko
da gure lekua

**EUSKALDUNA NAIZ ETA HARRO
NAGO**
Gasteiztarrak izanda
euskara hitz egingo
jaiotzetik hiltzera
nik euskara gogo
ikurriña ta guzti
nago bero bero
euskalduna naiz eta
harro harro nago!

EUSKAL HIZTUNAK
Euskal hiztunak sortu
euskaraz bertsoak
baita ere euskaraz
egindako kantak
hiztunak dira asko
mundu osokoak
euskal hiztunak dira
euskaldun petoak

EUSKAL BERTSOA
Tontoek ez dituzte
bertsoen gogoak
Josu hoberena da
egiten bertsoak
bertsoak egiteko
atsoen ahoak
eta euskal bertsoak
dira hemengoak

ARGITXO
Hau bada bai euskara
izpiritutxo
txano gorri gorria
berde arropatxo
iratxo ezagutzeko
bai badut gogoa
hau bere izena da
argitxo iratxo



Armentia ikastola – Gasteiz 6.B

EUSKARA

DOINUA: Orioko balea

EUSKARA HIZKUNTZA

Euskaraz hitz egiten
euskaldunak gara
euskaraz bizi eta
ondo pasatzera
gure herrialdea
euskal herria da
hizkuntza hoberena
da gure euskara

EUSKALTEGIAK
Aupa “que tal estas”
kanpotik ikusi
euskaraz hitz egiten
zergatik ez hasi
“yo no se como hablar”
euskaltegian hezi
orduan badakizu
euskara ikasi

ARABA EUSKARAZ

Euskalduna bazara
zoaz Arabara
aurkituko dituzu
hainbat patatera
egun eder honetan
ondo pasatzera
Araba Euskarazen
euskara maite da

KORRIKA

Zatoz gurekin bizkor
euskaldun bazara
pasatuko gara ta
etxetik Bilbora
furgoneta aurretik
goaz Gasteizera
korrika tipi tapa
aupa gure_euskara

EUKARAREN EGUNA

Euskararen eguna
dibertigarri da
urteroko festa bat
da gure ohitura
ondo pasatzen dugu
nahi dugun modura
euskara maite dugu
euskaldunak gara

KILOMETROAK

Euskal Herrian gaude
euskara helburu
Gipuzkoan ospatu
ezin dugu galdu
festa honek izena
kilometroak du
gure hizkuntza da eta
zaindu behar dugu



Armentia ikastola – Gasteiz 6.D

EUSKARA

EUSKARAREN EGUNA

Euskararen eguna
dugu guztiona
jai honek esaten dit
ni orain naizena
euskaraz kantatzeko
ikasi dut dena
denon jai hau benetan
guretzat onena

IKASTOLAK

Adi egon behar gara
hura babesteko
guk erabiltzen dugu
bertsoa ikasteko
askotan izan dira
gauzak maitatzeko
ikastolak ditugu
euskara amesteko

EUSKARA

Dibertitzen gara gu
euskararen alde
euskara galtzeaz da
asko triste daude
zuk egin dezakezu
guk bezala ere
euskaraz hitz egiten
gu bai pozik gaude

EUSKALTEGIAK

Gasteizen eta Bilbon
Barakaldon gara
euskara ikasteko
lekua hauxe da
euskaltegian gaude
joan zaitezte hara
materiala hartu
ta euskaltegira

BERTSOA

Gu denok elkarrekin
abesteko bada
munduan zehar bidaia
umeen ikara
bertsoak asko dira
lau oinak burura
bertsoak egiteko
bide bakarra da

KORRIKA

Euskararen omenez
martxan bai biraka
denak egiten dute
pozik ta irrika
oso ondo egiten da
entzuten musika
hau motibazioa
eginez korrika

ARABA EUSKARAZ

Egun hau da berezko
haurrentzat jolasez
ondo pasatzen da ta
hizkuntza bakarrez
oinez ibili eta
gastelaniaz ez
jolas, kanta ta abar
euskaraz eginez



Toki Eder – Gasteiz
5.A

NATURA

Ondo lagun
Natura txapeldun
Errespetatu ta zaindu deza-
gun

Nahiz eta errazena
Dugun kutsatzea
Hobe dugu natura
Errespetatzea

Kalea garbi egon
Bahar da ta berez
Zigarroak ez bota
Lurrera mesedez

Errazagoa izango
Da denon artean
Hobe da ez botatzea
Zaborra kalean

Zaborra kalean da
Hobe ez botatzea
Txakurraren gorotzak
Hobe jasotzea

Ibaietan zakarra
Ez da behar bota
Ibaietan zakarra
Mordoa dago ta

Denok lortuko dugu
Ta ez egin negar
Mendietan etxeak
Ez eraiki behar

Lortu behar duguna
Herriko kotxea
Bizidun guztiak ez
Kontaminatzea

Gure helburua da
Ixtea txorrota
Komun ta sukaldea
Ur asko ez bota



Toki Eder – Gasteiz
5.B

ZAZPI ANTZUMEA

Bazen behin zazpi antxumen
ama bat bizi zen
erosketa aurretik
gauza bat esan zien
ez ireki inori
oihukatu zuen
ama atetik irten zen
hori esan ondoren

Otsoa aritu egin zen
atea beti jotzen
gaizki erantzun zion
eta oso ozen
zu ez zara sartuko
inoiz bertan hemen
azkenean ahotsa
aldatu egin zuen

Otsoa sartu zenean
hienagana zuzen
otsoak jan zituen
sei_arkume hemen
otsoak basoraino
ailegatu omen
txikiena_erlojuan
ezkutatu_egin zen

Zazpi antxumeen amak
zainduta kumeak
erosketak egin behar
tripan hutsuneak
arriskutsuak ziren
etxe inguruan
eta bakarrik han zeuden
zazpi antxumeak

Otsoa etorri zen
atea joz bizi
irina jarri zuen
eta hankan itsatsi
atearen azpitik
hanka erakutsi
eta atea ezin
izan zuten itxi

Ama eta txikia
ehiztaiaren antzera
tripa_ireki zioten
antxumeak atera
ta sartu zizkioten
harriak gainera
otsoa bota zuten
erreka batera



Toki Eder – Gasteiz
5. C

Baserriak bai ditu
Hainbat kolore
Barazkiek ere bai
Hainbeste zapore
Oilategian ditu
Oilo denak gorde
Baserrian bizi naiz
Hirian baino hobere

Marixak eman zuen
Egunean lan pila
Azkenean nekatu
Eta gose mila
Tortilla egin zuen
Oso borobila
Marixak paug esan du
Jatean tortila

Arrautzak hartzerakoan
Marixa arraro
Joaten denerako
Arrautza akabo
Sukaldatzerakoan
Tortila badago
Gazta eta piperra
Ezin dut gehiago

Arrautza baten truke
Tortila mesede
Atzoko oroitzapena
Bai oso suabe
Oiloteaira joan zen
Esperantzarik gabe
Marisaren arrautzak
Oso txarrak daude

Beste arrautzak eta
Zapore ezberdinen
Txorizoa tipula
Txarrenak dena den
Ikusten zuen dena
Oiloak jan hemen
beste arrautzak ere
Oso txarrak zeuden

Bost oilo bazituen
Hau bai dela pena
Lau oiloak alferrak
Gauza nabarmena
Azkenarekin ez du
Eduki problema
Azkenean artozko
tortila onena



Toki Eder – Gasteiz 6. A

MAITASUNARI BERTSOAK

Zurekin ezagutu
nahi nuke Jamaika
Baina logelan beti
dagoenez aita
Eta ni beti esanez
ai zelako gaita
Bera joaten denean
joango gara nahiz-ta
Nik zu maite baitzaitut,
eta zuk ni baita

Niri gustatzen zaidan
neskak ez du diru
Baina ez du inporta
ile polita du
Pasaden egunean
muxu eman dugu
Biok hain pozik geunden,
ta parkean zibu
Ez nekien eta naiz
zutaz maitemindu

Kalean maitatu ahal da
ta egin praktika
Arrantza bezala egin
amua ta pita
Maitale ikusi dut
zer nolako zita
Bere izena Andrea da
berak esan dit ta
Maitasuna delako
gauza oso polita

Kalean ikusi dut
neska bat panpoxa
Eta uste dut dela
oso aproposa
Hitz egitera joan naiz
ai zelako lotsa
Zure muxutxoekin
nahiko nuke goza
Maitemindu egin naiz
zer nolako poza

Familia ta pertsonak
maite baititugu
Zoriontsu izatea
da gure helburu
Muxuak, besarkadak,
ematen seguru
Maitasuna ederra
elkar maitemindu
Ta gure maitasuna
zuretzako dugu

Maitemindu nintzen ta
bere izena Arkaitz
20 urte dauzka hark,
eta ez da apaiz.
Nola nire buruan
egoten zaren maiz
Gurea ederra da
ta umore alaiz
Berarekin nago ta
ondo sentitzen naiz



Toki Eder – Gasteiz 6. B

NOLA SENTITZEN ZARA EU- REKIN?

Lagunak inportanteak dira
batzuekin maitasunak
maitasun hori demostratzeko
oparitu eraztunak
baina hobeto sentitu ahal gara
errespetatzen lagunak


Nahi dugu azkar pasa dadila
eskola eta astea
nahi dugu lagunen ahoetan
irribarreak marraztea
gehien gustatzen zaidana nire
lagunekin jolastea

Lagunak jolasteko behar ta
bizitzan gaziki ez egoteko
Jolasten eta jolas artean
pasatzen dugu hobeto
lagunak oso inportanteak
dira pozik bizitzeko

Lagunak izan nahi badituzu
ondo portatu beharko
lagun oso onak nahi badituzu
emaztea zertarako
lagunak ondo zaintzen ditugu
betirako direlako

beti jolasten beti kantatzen
egoten gara seguru
milaka lagun egiten ditugu
eta parkea helburu
udalekuetan gaudenean
oso ondo pasatzen dugu

Lagun onenak non ote dira
nahiko nuen galdetzea
berarekin jolasten dugu
klase gabeko klasea
hori izan da definizioa
espero dut ulertzea



Ramon Bajo – Gasteiz
5. eta 6. mailak

ASMAKIZUNAK

Championsekoarekin
Jolastu egin duzu
Ostiko eta guzti
Ematen diezu
Eta golak sartzeko
Balio du aizu
Kirola egiteko
Balioko dizu

Irakasle ta ikasle
Beti mahai inguru
Margotzeko koaderno
Ipuin ta liburu
Kolore asko ditu
Ta oso seguru
Boli eta margoak
Gordetzen ditugu

Oso inportante da
Ireki ta itxi
Asko daude munduan
Normal ta berezi
Barrutik oso handi
Nahi duzu iritzi
Asko behar dugu ta
Ezin gara bizi

Jolasteko ona da
Hori dugu helburu
Eskolako umeok
Berdina daukagu
Eskola eta gero
Jolasten seguru
Media Markt-en dendetan
Aurkitu ahal dugu

Oso oso handia
Ta ez da garbia
Oso motela dugu
Ta hortz batzuk falta
Ibiltzen duenean
Egiten zarata
Mamutaren anirik
Gazteena da ta

Leku guztietan dago
Baita hemen bertan
Denok dugu gustoso
Dugun bat benetan
Monalisa koadroan
Eta margoetan
Aurkitu dezakegu
Leku guztietan

